



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros

PRENTSARAKO OHARRA

2019/05/15

Adar-hotsak deituko deutse barriro Batzar Nagusiei Ganekogortatik bagilaren 2an, domekan

Bizkaiko Batzar Nagusiek oso egun berezia pasetako aukerea emongo dabe, kirola eta kulturea buztartuko dituan egun bat. Elezaharrak dinoanez, adar-hotsez deitzen zan antxina Gernikako batzarretara, eta adar-hotsa izango dabe bide-erakusle bagilaren 2an, domekan, Ganekogorta mendira igongo dabenek. Izan be, Deiadar Mendien XVI. Eguna izango da orduan, eta Bizkaiko tontor adierazgarrienetarik baten ospatuko da egun hori. Aurreko urteetan, beste lau “deiadar-mendietan” ospatu zan eguna, Antonio Trueba Bizkaiko Jaurerriko artxibozainak kroniketan eginiko kontaketeari jarraiturik; hau da, Gorbeia, Oiz, Kolutza eta Sollube mendietan.

Bizkaiko Batzar Nagusiak barriro eratu ziraneko 25. urteurrena ospatzeko antolatu zan egun hori, eta, usadioari jarraipena emoteko, aurten be egingo da ospakizun-ekitaldia, kasu honetan Bilboko Gailurra klubagaz alkarlanean. Goizeko 8etan hasiko da ibiltaldia Kobetamendiko aparkalekuan, baina parte-hartzaileek ohikoa ez dan bide bat hartuko dabe Ganekogortako tontorrera (998 m) heltzeko, ez asteburu guztietan Pagasarri igoteko ehunka bilbotarrek hartzen dabene bidea. Bilbotarrentzat mitikoa dan Pagasarri menditik, kopau bat egin ostean, Ganekogortara igongo da goizeko 10etatik aurrera, eguerdiko 12etan adarrak joteko usadioa zorrotz beteteko.

Tontorrean adar-hotsa entzun ondoren, izango da nora joan, antolatzaileek jai-gune bat atondu dabelako Pagasarriko zelaietan, eta musikea, euskal dantzak, antzerkia, indarrak barriztatzeko kopau bat eta igokera osoa egiten dabenezako opari bat izango dira bertan.

Aurten, Bilboko Gailurra mendi-taldea arduratuko da kirol-igonaldiaz, eta, ohitureari jarraiturik, domeka horretan emongo deutso lekukoa Lemoako Ganzabal klubaren ordezkariari, Gorbeiako igonaldia antolatu daian datorren urteko bagileko lehenengo domekan, eta era horretan jarraipena emon deion deiadar-mendietako igonaldien zikloari, urte bakotxean mendi batera igoteko.

Bost adarren errealidadea

Gaur egun egiten dan Deiadar Mendien Eguneko ospakizuna XIX. mendeko idazle eta historialariek eginiko irudikapenaren ondorioa da. Erdi Arotik, hainbat dokumentutan aitatzen ziran Gernikako Batzar Nagusietara deitzeko egiten ziran bost adar-joteak, eta idazle eta historialariek dokumentuotan oinarriturik irudikatu eben zelan egiten ziran deiok. Hiru idea honeetan oinarritu ziran:

- Erdi Aroko dokumentuetan jasoten dan errealidade instituzionala; izan be, dokumentuon arabera, Gernikan bost adar jote ziran Batzar Nagusiak hasi baino lehen.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros

- Lope Gartzea Salazarrek XV. mende-amaieran “Bienandanzas e Fortunas” lanean Jaun Zuriaren elezaharrari buruz egin eban bersinoa; horren arabera, Gernikan bost adarrak jo ostean aukeratu eban Bizkaiko lehenengo jaun mitikoa XV. mendean bizkaitarren buru izan eiten inbaditzaileen kontra burrukatzeko.

- XVI. mendeko kroniketan jasotakoaren arabera, orduan sinisten zan adar-hotsak erabilten zirala mendi inguruetan.

Datu horreen artean, batzuk egiazkoak dira —esaterako, Batzar Nagusiak hasi orduko, bost adar joten zirala Gernikan— eta beste batzuk elezaharrak eta sinisteak baino ez dira, baina XIX. mendeko egileek, datuotan oinarriturik, interpretatu eban Batzarretara deitzeko bost adarrak bost menditan jo behar zirala. Pascual Madoz geografoa izan zan interpretazino hori egin eban lehenengoa, “Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar” (1850) idatzi ebanean.

Horren ostean, Antonio Trueba galdamestarra, zein Bizkaiko Jaurreriko Kronista eta Artxibozain izentau eban Bizkaiko Batzar Nagusiek 1862an eta informazioa batu gura eban “Una modesta historia general de Vizcaya” lana idazteko, bere garaikide guztiek onartutako ondorioez baliatu zan eta bost mendien izenak proposatu zituan: Gorbeia, Oiz, Kolutza, Ganekogorta eta Sollube. Hori guztia Jaun Zuriaren elezaharraren barruan txertatu eban beti. Handik denpora gitxira, ondorengo idazleek pentsau eban bost mendi horreek erabiliko zirala Batzar Nagusietara deitzeko, eta idea horrek gaur arte iraun dau bizirik.

Ikerketa lana

Bizkaiko Batzar Nagusiek agindu dabe ikerketa bat egin daitela, eta laster argitaratzekoa dan ikerketa horretan aztertzen dira deiadarren usadioaren nondik norakoak, Erdi Arotik XX. mendera arteko bibliografia arakatuz eta ondorioak ataraz bost adarrak joteko usadioak mendeetan zehar euki dauen bilakaereari eta errealidadeari buruz.

Zerbait aurreratzearen esan leiteke eze, ikerketa-lan horren arabera, Deiadar Mendien Eguna horretan alderdi bi batzen dirala: alde batetik, errealidade historiko bat, frogatuta dagoana —Erdi Aroan bost adar joten zirala Gernikan—, eta, bestetik, mendeetan zehar egin diran interpretazino historikoak, batez be bizkaitarren bereizgarriak (foruak, tradizinoak, ohiturak, hizkuntza...) zalantzan ipini ziranean eginak. Kontua da daborduko ohiturea dala, urtean-urtean egiten dana, ohitura oso bizkaitarra eta oso bizia, kirola, naturea, tradizinoak, historia eta elezaharra bateratzen dituana.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros

NOTA DE PRENSA
15/05/2019

El sonido del cuerno volverá a convocar a Juntas Generales desde el Ganekogorta el domingo 2 de junio

Las Juntas Generales de Bizkaia volverán a abrir vía para la celebración de una jornada deportiva y cultural muy especial. El sonido del cuerno con el que cuenta la leyenda se anunciaba la convocatoria de las reuniones que se celebraban en Gernika antiguamente, orientará el domingo, 2 de junio, en su ascensión al monte Ganekogorta a las personas que se sumen a la XVI edición del Día de los Montes Bocineros. Una de las cimas más emblemáticas de Bizkaia será escenario de esta celebración después de sucesivas ascensiones, años atrás, a las otras cuatro cumbres “bocineras” (Gorbeia, Oiz, Kolitza y Sollube), citadas así en las crónicas legendarias que escribió el archivero del Señorío de Vizcaya, Antonio de Trueba.

Las Juntas Generales de Bizkaia, continuando con la tradición iniciada en el año 2004 con motivo del 25 aniversario del restablecimiento de esta institución, llevarán a cabo esta costumbre contemporánea en colaboración esta vez del club Gailurra de Bilbao. La marcha partirá a las 8 de la mañana desde el parking de Kobetamendi. Los participantes ascenderán a la cima del Ganekogorta (998 metros) por otra vía diferente a la que utilizan cientos de bilbaínos y bilbaínas todos los fines de semana para ascender al Pagasarri. Desde la mítica cumbre bilbaína se ascenderá, tras un pequeño avituallamiento, a partir de las 10 horas al Ganekogorta para cumplir fielmente con la tradición de tañir los cuernos a las 12 del mediodía.

Tras el sonido de los cuernos en la cima, la organización ha preparado un pequeño espacio festivo en las campas del Pagasarri en donde no faltará música, danzas vascas, teatro, un pequeño aperitivo reponedor de fuerzas y un regalo para quienes hagan la ascensión completa.

El club de montaña Gailurra de Bilbao, encargado de la ascensión deportiva de este año, cederá ese domingo, como es tradición, el testigo al representante del club Ganzabal de Lemoa para que organice el primer domingo de junio del año próximo la subida al Gorbeia, continuando así con el ciclo de ascensiones a los montes bocineros, una distinta cada año.

La realidad de las cinco bocinas

La actual celebración del Día de los Montes Bocineros es la representación que los escritores e historiadores del siglo XIX llegaron a definir tras consultar la documentación que desde la Edad Media se había escrito en referencia al tañido de cinco bocinas en las Juntas Generales de Gernika. Estas conclusiones las obtuvieron de la síntesis de tres ideas:

- La realidad institucional recogida en los documentos medievales donde se indica que se tañían cinco bocinas en Gernika antes del comienzo de las Juntas Generales.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros

- La versión que sobre la leyenda de *Jaun Zuria* hizo Lope García de Salazar a finales del siglo XV en las “*Bienandanzas e Fortunas*”, señalando que el mítico primer señor de Bizkaia fue elegido en el siglo X para acaudillar a los vizcaínos contra los invasores después de tocar las cinco bocinas en Gernika.

- Las creencias sobre el uso de bocinas en zonas montañosas que recogieron las crónicas del siglo XVI.

Con estos datos que compilaban aspectos reales -el tañido de las cinco bocinas antes de comenzar las Juntas en Gernika- más otros precedentes de leyendas y creencias, los autores del siglo XIX interpretaron que las cinco bocinas se debían tañer en cinco montes para llamar a Juntas siendo el primero que lo mencionó el geógrafo Pascual Madoz en su obra *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar* (1850).

Posteriormente, Antonio de Trueba (Galdames), proclamado en 1862 por las Juntas Generales de Bizkaia “Cronista y Archivero del Señorío de Vizcaya” en su afán por recopilar información para escribir “Una modesta historia general de Vizcaya”, utilizó las conclusiones aceptadas por todos sus contemporáneos, llegando a proponer el nombre de aquellos cinco montes (Gorbeia, Oiz, Kolutza, Ganekogorta y Sollube), aunque siempre integrándolo dentro de la leyenda de “Jaun Zuria”. Poco después, los autores posteriores, consideraron que esos cinco nombres serían también los usados para llamar a Junta General, idea que ha pervivido hasta la actualidad.

Trabajo de investigación

Las Juntas Generales de Bizkaia han encargado un estudio de investigación, que pronto verá la luz, que indaga en la tradición bocinera vizcaína consultando bibliográfica desde la Edad Media hasta el siglo XX y en el que se exponen las conclusiones relativas a la realidad y evolución de la tradición del tañido de las cinco bocinas a lo largo de los siglos.

Como adelanto, y según este trabajo de investigación, el Día de los Montes Bocineros supone fusionar una realidad histórica y probada -el tañido de cinco bocinas en Gernika durante la Edad Media- con las diferentes interpretaciones históricas hechas a lo largo de los siglos, principalmente cuando la idiosincrasia vizcaína se ponía en entredicho (fueros, tradiciones, costumbres, lengua...). El hecho es que hoy es una costumbre que se celebra una vez al año, una costumbre muy vizcaína y muy viva, que combina deporte, naturaleza, tradición, historia y leyenda.